

Denis Itxaso González jn., bere izenean eta Markel Olano Arrese jaunaren ordez.

Elena Lete Garcia and.

Vicente Pérez Fernández jn. (bideokonferenzia bidez), Tomás Fernández García jaunaren ordez.

Carlos Ruiz González jn. (13:00etatik aurrera agertu da).

Juan José Álvarez Rubio jn.

Iñaki Esparza Leibar jn.

Maite Barruetabeña Zenekorta and.

**BERGARAKO UNED FUNDazioAREN
PATRONATUAk 2017KO UZTAILAREN
24an GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIAREN JAUREGIAN
EGINDAKO BILERAREN AKTA.**

2017ko uztailaren 24an, goizeko 12:00etan, zerrendatu diren Patronatuko kideak elkartu dira, eta hau izan da **GAI ZERRENDA**:

1. 2017ko martxoaren 16ko bilerako akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.
2. Auditoria txostenetako patronatuko kideei ematea.
3. Berresteak, hala badagokio, UNED-Bergarako zentroan kriminologiako gradua ezartzeari.
4. Errege Mintegiaren eraikinaren eraberritze eta berregokitze lanen egoera, eta bere finantzaketa. Ekipamenduari buruzko aurreikuspenak.
5. Eusko Jaurlaritza Fundazioaren patronatura atxikitzea: hori gauzatzeko beharrezkoak den estatutuen aldaketa izapidez.
6. UNED-Bergarako langileak: adostutako erretiroak eta antolaketa berria.
7. Eskariak eta galderak.

1.) Aurreko akta.

Patronatuaren 2017ko martxoaren 16ko bileraren akta onartu da.

2.) Auditoria txostena: patronatuko kideei ematea.

Juanjo Alvarezek aurkeztu du 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuen auditoria txostena. Auditoriak emaitza ona eman duela adierazi du, Fundazioak aurkeztutako eta gauzatutako kontuei inolako oharpenik, salbuespenik eta erreserbarik egin gabe.

3.) Berrestea, hala badagokio, UNED-Bergarako zentroan kriminologiako gradua ezartzea.

Iñaki Esparzak esan du ezen, beharrezkoak diren egiaztapenak egin ondoren, interesgarria izango litzatekeela datorren ikasturterako kriminologiako gradua sartzea, interes handia pizten duelako. Azpimarratu du titulazio horrek eskatzen duela UNED-Bergaran dagoeneko ematen diren beste titulazio batzuetako tutoreen parte hartzea, hala nola Psikologiako edo Zuzenbideko tutoreena. Horrenbestez, ez da tute berririk kontratatu beharko, nahikoa izango da goian aipatu diren eta lehendik dauden titulazioetako tute batzuen irakastorduen karga sendotzea.

Vicente Perezek oso positibotzat jotzen du titulazio hori UNED-Bergararen ikasketa eskaintzan sartzea, eta Denis Itxaso diputatuak esan du interesgarria litzatekeela eskaintza horren inguruko informazioa bidaltzea. Komentatu da eta ahobatz erabaki da egokia eta beharrezko dela informazio xehatu gehiago jasotzea Patronatuaren bilerak egin aurretik, kontu honi eragiten dioten gaien inguruko informazio gehiago izateko.

4.) Errege Mintegiaren eraikinaren eraberritze eta berregokitze lanen egoera, eta bere finantzaketa. Ekipamenduari buruzko aurreikuspenak.

Iñaki Esparzak azaldu du GOITU enpresari obra esleitu (gainerako lizitatzaleei jakinarazi ondoren) eta beharrezkoak diren kudeaketa administratiboak amaituta, hasi direla lanen lehen urratsak egiten (gruaren instalazioa, obrarako instalazioen muntaia...).

Juanjo Alvarezek esan du Eusko Jaurlaritzak eskatu duela obrekin lotutako ekipamendurako beharrezkoak diren altzarien balorazioa egiteko, bere ekarpeneconomikoa egin ahal izan dezan.

Obra egutegiari dagokionez, esleipenean izandako atzerapenaren ondorioz, 2017ko ekitaldiari dagozkion ordainketak Fundazioaren gerakinekin egingo dira, eta 2018ko obren gastuei aurre egiteko erakundeek egindako ekarpenak erabiliko dira.

Elena Letek uste du interesgarria dela aldez aurretik bilera bat egitea, obraren exekuzioa eta epeak ezagutzeko. Txosten bat prestatuko da eta Patronatuko kide bakoitzari banatuko zaio, aztertu dezan.

5.) Eusko Jaurlaritza Fundazioaren patronatura atxikitzea: hori gauzatzeko beharrezko den estatutuen aldaketa izapideztea.

Juanjo Alvarezek esan du estatutuaren aldaketak egokitzeari buruzko eztabaidaren ondoren, eta Bergarako alkate andreari zituen zalantzen inguruko txostena bidali eta gero, gelditzen dena dela Bergarako Udalak osoko bilkuraren onartzea aldaketa horiek, Kutzak eta GFAk jada onartu dituztenak. Izapide horiek amaitutakoan, publiko egingo dira estatutu berriak.

Juanjo Alvarezek argitu du Eusko Jaurlaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko UNEDeko zentroetan parte hartzen duela UNED-Bergarako zentrorako planteatzen dituen baldintza beretan, hau da, ez du ekarpen portzentual bat egiteko konpromisorik hartzen, eta ekarpena Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu baliabideen araberakoa izaten da.

Denis Itxasok planteatu du ea ezin den estatutuetan jaso Eusko Jaurlaritzak Patronatuan kide gisa parte hartzeko modalitate hori, berariaz jasota utziz funtsezko zenbait erabaki hartzeko, besteak beste, estatutuen aldaketak, aurrekontuaren onarpena edo langileen inguruko gaiak, beharrezkoa izango dela GFAren onarpena; izan ere, EJ Patronatuan sartuz gero, GFA gutxiengo izango baita, Patronatuan gehiengo portzentuala eduki arren.

Erabaki da onartutako estatutuen aldaketarekin batera beste aldaketa bat eranstea, Denis Itxasok egindako oharpenak bilduz. Aldaketa hori jasoko duen agiri bat prestatuko da, eta Patronatuko kideei aurkeztuko zaie balioztatu dezaten eta, ondoren, erakunde bakotzeko organo eskumendunek onar dezaten.

Eusko Jaurlaritzari erabaki horren berri emango zaio, baloratu dezan.

6.) UNED-Bergarako langileak: adostutako erretiroak eta antolaketa berria.

Iñaki Esparzak azaldu ditu UNED-Bergarako langileen eta zerbitzuen inguruan, Patronatuak eskatuta, burutu diren jarduketak, eta Patronatuaren beraren berrespema eskatu du.

Gaur egungo plantila berrantolatzeko ideiari dagokionez, hainbat azterketa egin dira, eta, horietatik ateratako emaitzak gauzatuko balira, onuragarria izango litzateke Fundazioaren aurrekonturako.

Idazkari buruari dagokionez, laster erretiroa hartzeko dela kontuan hartuta, erabaki da gaur egun administrari lanak egiten dituztenetako batek idazkari buruaren zenbait zeragin hartzea, ordainsaria igota. Gainerako zereginak UNED-Bergararen beste gai batzuk eramatzen dituen gestoriaren esku utziko dira.

Plantilakoak diren lau koordinatzaileei dagokienez, aurre-erretiroko politika ezartzea proposatzen da. Pertsona horiek 2020an eta 2021ean hartu beharko lukete erretiroa. Baino, pertsona horien ordainsari kostua kontuan hartuta, proposatu zaie kalte-ordinat bat ematea aurre-erretiroa hartu ahal izateko, eta horrekin aurrezpen bat lortzen da

I. kapituluan. Aurre-erretiro horiei esker amortizatu egingo lirateke lanpostu horiek, eta UNEDeko beste zentro batzuetako egiturarekin parekatuko litzateke; izan ere, plantilan koordinatzaile lanpostuak egotea UNED Bergaran bakarrik gertatzen da.

Lehenengo bi aurre-erretiroak 2017ko abuztuan eta irailean izango dira, eta beste biak 2018an, modu mailakatuau gauzatu daitezten. Aldaketa horiek, etorkizunean, murrizpen garrantzitsua eragingo dute I. kapituluan.

Une honetan, zentroaren baliabide propioekin erantzun ahal izango zaie aurre-erretiro horiei, eta 2018an eta 2019an zehar amortizatu ahal izango dira, gehikuntzarik edo finantzaketa gehigarririk behar izan gabe.

Berezko Ikastaroen Zentroko arduradunari dagokionez, zeinak autonomo gisa jarduten zuen, berriz aztertu da harreman hori, eta hiru urterako zerbitzuen errentamenduko merkataritza harremana izatera pasa da, bere ordainsarian osagai finko bat eta aldagari bat sartuz. Interesdunak bere adostasuna eman dio planteamendu horri.

Liburutegi zerbitzuari dagokionez, 2016an zentroak bere gain hartu zuen liburutegi zerbitzuaren kudeaketa, baina ez da errentagarria. Horrenbestez, proposatzen da 2017an zerbitzuarekin jarraitzea, 2018an zerbitzu hori kentzea eta UNED zentralaren bidez gauzatzea. Lanpostu hori betetzen zuen langileak administrari lanak egingo ditu zentroarentzat, eta 2018an baloratuko da zein den lanaldi egokia.

Laburbilduz, aldaketa horiek guztiak eragina izango lukete UNED-Bergarako plantila osatzen duten 12 plazetako 5etan, beraz, aldaketa garrantzitsuak dira.

Euskal filologia saileko irakasle elkartuaren plaza UNED-Bergarako tutore batek bete du, eta Patronatuak modu positiboan baloratzen du hori.

Aurreko guztiaren inguruan esku hartzerik egon ez denez, berretsitzat jotzen dira deskribatutako jarduketa guztiak.

Beste gairik ezean, lehendakari jaunak bilera amaitutzat eman du 13:15ean, eta nik idazkari bezala ziurtatzen dut.

D. Denis Itxaso González (en nombre propio y por delegación de D. Markel Olano Arrese),
Dña. Elena Lete García
D. Vicente Pérez Fernández (por videoconferencia) en representación de D. Tomás Fernández García
D. Carlos Ruiz González(asiste a partir de las 13:00 h)
D. Juan José Álvarez Rubio
D. Iñaki Esparza Leibar
Dña. Maite Barruetabeña Zenekorta

ACTA DE LA REUNIÓN DEL PATRONATO DE LA FUNDACIÓN UNED BERGARA, CELEBRADA EL DIA 24 DE JULIO DE 2017, EN EL PALACIO DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA.

Siendo las 12:00 horas del día 24 de julio de 2017, se reunieron los miembros del Patronato, detallados al margen, con el siguiente **ORDEN DEL DIA:**

1. Lectura y aprobación, si procede, del acta de la reunión del día 16 de marzo de 2017.
2. Informe de Auditoría: aportación a los miembros del patronato.
3. Ratificación, si procede, de la implantación del grado de criminología en el Centro UNED Bergara.
4. Situación de las Obras de rehabilitación y readecuación en el edificio del Real Seminario y su financiación. Previsiones en cuanto al equipamiento.
5. Adscripción del Gobierno Vasco al Patronato de la Fundación: tramitación de la reforma estatutaria para su materialización.
6. Personal de UNED Bergara: jubilaciones pactadas y nueva organización.
7. Ruegos y preguntas.

1º) Acta anterior.

Se aprueba el Acta de la reunión del Patronato de 16 de marzo de 2017.

2º) Informe de Auditoría: aportación a los miembros del patronato.

Juanjo Álvarez presenta el informe de auditoría de las cuentas anuales correspondientes al ejercicio 2016. Señala que siendo la primera vez que se realiza la auditoria el resultado es más extenso que una auditoría habitual. Se indica que se ha resuelto positivamente la auditoria, sin observación, salvedad ni reserva alguna a las cuentas formuladas y ejecutadas por la fundación.

3º) Ratificación, si procede, de la implantación del grado de criminología en el Centro UNED Bergara.

Iñaki Esparza indica que, tras las necesarias comprobaciones, sería interesante incluir para el siguiente curso el grado de Criminología por su alto interés. Se remarca que esta titulación requiere la participación de tutores/as de otras titulaciones que ya se imparten en UNED-Bergara, tales como Psicología o Derecho. Por ello, no será necesaria la contratación de nuevos tutores/as sino reforzar la carga docente de algunos tutores/as de las titulaciones existentes mencionadas.

Vicente Pérez valora positivamente la inclusión de esta titulación en la oferta docente de UNED-Bergara, y el diputado Denis Itxaso indica que sería interesante que se les remitiera la información en relación a esta oferta. Se comenta y acuerda por unanimidad la oportunidad y necesidad de recibir más información detallada con anterioridad a la celebración de las reuniones de Patronato, para tener más información respecto a los temas que afecten al mismo.

4º) Situación de las Obras de rehabilitación y readecuación en el edificio del Real Seminario y su financiación. Previsiones en cuanto al equipamiento.

Iñaki Esparza expone que una vez adjudicada la obra a la empresa GOITU (tras la notificación al resto de licitadores) y terminadas las gestiones administrativas necesarias, ya se han empezado a dar los primeros pasos de la obra (instalación de grúa, montaje de instalaciones para la obra...).

Juanjo Álvarez indica que el Gobierno Vasco ha solicitado la valoración del mobiliario necesario para equipamiento vinculado a la obra y poder hacer en relación a ello su aportación económica.

En cuanto al calendario de obra, debido al retraso en la adjudicación, los pagos en relación al ejercicio de 2017 se realizarán con los remanentes de la Fundación, y con las aportaciones de las distintas instituciones se hará frente a los gastos de ejecución de obra del ejercicio de 2018.

Elena Lete considera interesante que se realice una reunión previa para conocer la ejecución de la obra y sus plazos. Se elaborará un informe que se aportará a cada patrono para su análisis.

5º) Adscripción del Gobierno Vasco al Patronato de la Fundación: tramitación de la reforma estatutaria para su materialización.

Juanjo Álvarez indica que tras el debate, en relación a la adecuación de los cambios estatutarios, y tras remitir un informe a la alcaldesa de Bergara en relación a sus dudas concretas, queda pendiente que el ayuntamiento de Bergara apruebe en Pleno estas modificaciones, ya aprobadas por Kutxa y DFG. Una vez realizado este trámite, se elevará a público los nuevos estatutos.

Aclara Juanjo Álvarez que el Gobierno Vasco participa con los distintos centros de UNED de la Comunidad Autónoma Vasca en las mismas condiciones que plantea para UNED-Bergara, esto es, no se comprometen con una aportación porcentual, sino depende de la disponibilidad presupuestaria del GV.

Denis Itxaso plantea si esta modalidad de participación como socio en el Patronato del GV no puede recogerse en los estatutos, recogiendo expresamente que ciertas decisiones de calado, tales como cambios estatutarios, aprobación de los presupuestos o materia de personal, deban contar con la aprobación necesaria de la DFG, puesto que al incorporar al GV en el Patronato la DFG se queda en minoría a pesar de su mayoría porcentual en el patronato.

Se acuerda que junto a la modificación de los Estatutos ya aprobados adjuntar otra modificación que incluya las observaciones hechas por Denis Itxaso. Se preparará un documento que recoja esta modificación que se presentará a los patronos para que lo validen y posteriormente se apruebe por cada uno de los órganos competentes de cada institución.

Se transmitirá al GV dicha decisión para que sea valorada.

6º) Personal de UNED Bergara: jubilaciones pactadas y nueva organización.

Iñaki Esparza expone las distintas actuaciones llevadas a cabo a instancia del Patronato, en relación con el personal y los servicios de UNED-Bergara, para las que solicita la ratificación del propio Órgano.

En cuanto a la idea de redimensionar la plantilla actual, se han realizado ciertos análisis que arrojan unos resultados que de materializarse beneficiarán el presupuesto la fundación.

En relación con la jefatura de secretaría, ante la jubilación de la ocupante, se decide que una de las personas que actualmente desarrolla labores administrativas asuma ciertas labores de la jefatura con un incremento retributivo. Y el resto de funciones se externalizará a la gestoría que ya colabora con otros temas de la UNED-Bergara.

Con relación a los cuatro coordinadores de plantilla, se plantea una política de prejubilaciones. La jubilación de dichas personas se daría durante los años de 2020 y
San Martín Agirre Pl. 4
20570 Bergara

2021. Ante el coste retributivo de dichas personas, se les ha planteado una indemnización para que se puedan prejubilar, suponiendo ello un ahorro en el capítulo I. Con dichas prejubilaciones se amortizarían dichos puestos de trabajo, asimilándose a la estructura de otros centros de UNED, puesto que la existencia de coordinadores en la plantilla es una situación singular de UNED Bergara.

Las primeras dos prejubilaciones se darán en agosto y septiembre de 2017, y las otras dos prejubilaciones se darán en el 2018, con la intención de que dichas prejubilaciones se produzcan de manera escalonada. Todos estos cambios supondrán una disminución importante del capítulo I para el futuro.

En este momento, podrán atenderse y amortizarse plenamente dichas prejubilaciones con recursos propios del Centro, sin necesidad de incrementos o de financiación adicional, a lo largo de los ejercicios de 2018 y 2019.

En relación con el responsable del Centro de Cursos Propios, que actuaba como autónomo. Se ha reformulado dicha relación, pasando a ser una relación mercantil de arrendamiento de servicios por un plazo de tres años, con una retribución que incorpora un componente fijo y otro variable, dicho planteamiento cuenta con la conformidad de la persona interesada.

En cuanto al servicio de librería, en el 2016 el centro asumió la gestión del servicio de librería de manera directa, pero no es rentable. Por lo tanto, se plantea mantener el servicio durante el 2017 y para el ejercicio de 2018 se prescindiría de dicho servicio, y se desarrollaría mediante UNED central. La persona que asumía dicha labor pasará a desarrollar labores administrativas para el centro, valorándose en el 2018 la jornada adecuada.

Resumiendo, todas estas modificaciones afectarían a 5 de las 12 plazas de las que se compone la plantilla de UNED-Bergara, lo que acredita su relevancia.

La plaza de asociado del departamento de filología vasca ha sido ocupada por una tutora de UNED-Bergara, lo cual se valora positivamente por el patronato.

No habiéndose producido ninguna intervención al respecto, se dan por ratificadas todas las actuaciones descritas.

Y no habiendo más asuntos que tratar el Sr. Presidente levanta la sesión, siendo las 13 horas y 15 minutos, lo que yo, Secretaria, certifico.